



Gomendio espezifikoak

EHUN-GAIAK

- Saltokiak probagelak, behar izanez gero, denboraldi batez ixtea edo partzialki (txandakatzen adibidez, bat irekita eta bestea itxita) irekitzea baloratu beharko du eta saltokiko langileek laguntza pertsonala eskainiko dute, segurtasun eta higiene neurriak bermatzeko asmoz. Probagela bakoitzeko pertsona bat sar daiteke, salbuespenezko kasutan izan ezik, eta probagelak erabili ondoren, garbitu egingo dira, probagelako atea, panela edota gortina barne.
- Probagelara gortina bidez sartzen bada, gomendagarria da hori ate edo panel batez ordezkatzeko edo argibideak ezartzea eskuekin gortina ez ukitzeko eta eskularruekin edo ukondoarekin baztertzeko.
- Probatu diren jantziak desinfektatu edota berrogeialdian jarri beharko dira, horiek jaso eta manipulatu diren erabili eta botatzeko eskularruekin.
- Ahal den neurrian, bezeroei eskularruak emango zaizkie arropa ukitzeagatik sor daitezkeen kutsadurak ekiditeko.